


## 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Lan bila dabiltzan esperientziarik gabeko gazteei lagundu nahi die gure proposamenak. Gazte askok lan egin nahi dute baina ikasketak bukatu ez dituztenez ez dute titulorik ezta esperientziarik ere eta ez dakite nora joan lan bila. 16 urte inguruko gazte asko eta asko udako lan baten bila ibiltzen dira, baina adin txikikoak direnez ez dakite non bilatu. Hori dela eta, gure enpresak bere abilezien eta interesen arabera gehien egokitzen zaien lana aurkitzen lagunduko die.

Merkatuan dagoen enpresa bakarra gara arlo honetan. Gure laguntza gazteei zuzenduta dago eta pertsonalizatua da. Lan bila dabiltzan gazteek ez lukete ezer ordaindu beharko, ezagutaraziko genituzkeen enpresek baizik.



### Bezeroek gure zerbitzua aukeratzearen arrazoiak hurrengoak dira:

- Nobedadea: merkatuan lehenengo enpresa izango da bereziki gazteei zuzenduta egongo dena, eta gainera, guztiz dohainik.
- Pertsonalizazioa: bakoitzak bere datuak bete beharko lituzke (gaitasunak, gustuak, izaera, bizilekua, lanean espero duena...).
- Lana erraztea: erabiltzaileek egin beharko luketen bilaketa guk egingo genuke.
- Erabilerretasuna: erabiltzeko oso erraza izango da, edozeinek erabiltzeko modukoa. Behin aplikazioa deskargatu ondoren, beraien perfila osatu beharko dute, eta horrela, beraien intereseko ofertak zuzenki iritsiko zaizkie.
- Eskuragarritasuna: bezeroek aplikazioa deskargatu besterik ez dute egin beharko.

